



ALBOAN

ONG promovida por los jesuitas

Gasteiz hiriak bat egingo du Emakume Ausarten aldeko 5. Lasterketa solidarioarekin

Martxoaren 19an, igandean, izango da

Peruko emakumeen garapena eta genero berdinketa ahalbidetzen duten egitasmoetara bideratuko da jasotako dirua. 6,2 kilometroko froga martxoaren 19an 11:30etan Arka plazatik abiatuko da.

Aurten ere, Gasteiz hiriak bat egingo du Emakume Ausarten aldeko 5. Lasterketa solidarioarekin. Euren biziak aldatu eta hobetu nahi duten emakumeen aldeko ekitaldi honek martxoaren 19an hiriko kaleak zeharkatuko ditu. Bildutako diru-laguntza, Limako eskualdean genero inekitatearen aldea murriztu nahi duen Servicios Educativos El Agustino (SEA) erakundera bideratuko da. Emakumeei formakuntza eta aholkularitza emateko, lan duin bat eskuratzeko edo gizartean parte hartzeko dabil lanean SEA erakundea. Baina, azken finean, emakumeak –emakume ausartak- badira beren garapenaren protagonistak.

Gaur goizean, Gasteizeko Udaletxean aurkeztu da lasterketa **Marian Olabarrieta**, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen foru diputatua; **Nerea Melgosa**, Gasteizeko Udaleko Bizikidetzak eta Aniztasun zinegotzia; **M^a Mar Magallón**, ALBOAN GKE-eko zuzendaria; **Tania Lamarca**, gimnasta, eta Atlanta 1996-ko Jokoetan urrezko domina, eta **Iván Fernández**, atleta eta Euskadiko 2017ko Kross txapeldunaren eskutik.

Argibide gehiago eta izen-ematea: <http://www.alboan.org/lasterketa-emakume-ausartak>

Informazio gehiago eta elkarrizketak eskatzeko:

Edur Mintegi. e.mintegi@alboan.org // 660 445 247 - 944 151 135